

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2017KO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailak eskatuta egin dugu txosten hau, horretarako eskumena ematen baitzaio Emakunde -Emakumearen Euskal Erakundeari, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluan.

Txostenaren helburua da, batetik, 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan eta Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaz onartutako jarraibideetan agindutakoa behar bezala betetzen dela egiaztatzea eta, bestetik, hobekuntzak proposatzea (Jarraibideak, genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko).

Eskatutako txostenak aztertzen duen lege-aurreproiektuaren **helburua Euskal Autonomia Erkidegoko 2017ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzea da.**

Beraz, **xedapen arauemaile orokorra** da, zer-nolako genero-eragina duen ikusteko ebaluatu beharrekoa, lehenengo jarraibidearen 2.1 atalean ezarritakoarekin bat etorriz. Horretarako, lehen jarraibidearen 3. atalean aurreikusitakoaren arabera, araua sustatu duen organoak Generoaren araberako Eraginari buruzko Txostena egin du.

Egiaztatu dugularik bete direla 4/2005 Legean aurreikusitako izapide formalak eta generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak, ohar eta proposamen batzuk egin ditugu, Generoaren araberako eraginari buruzko txostenaren edukiari eta hura egiteko prozesuari dagokienez.

Aipatutako lege-aurreproiektuaren generoaren araberako eraginari buruzko txostenaren edukia aztertu baino lehen, **atariko ohar** batzuk adierazi nahi ditugu txostena prestatzeko baliatutako prozesuaz eta metodologiaz:

- Lehenik eta behin, ontzat ematen dugu, berriro ere, **Ogasun eta Ekonomia Sailaren lidergoa**, generoaren arabera eraginari buruzko txostena egiteko. Sail horrek, aurreko ekitaldian antolatutako lan-prozedurarekin jarraituz, lankidetzak eskatu die Jaurlaritzako sail guztiei, txosten hau egiteko.
- Gainera, lan-prozedura hori aktibo bat da berez, **sailen arteko lankidetzak sinergia bat antolatzen delako**, sail guztiek txostena egiten eskuratu duten eskarmentuan oinarrituta. Aintzat hartzekoa da, halaber, egun Eusko Jaurlaritza osatzen duten sail guztiek eskatutako datuak bidaltzeko egin duten ahalegina, bai eta parte hartu duten Erakunde Autonomoek eta Erakunde Publikoek egindakoa ere.
- Ildo horretan, aipatzekoa da eta oso ondo balioestekoa aurreko urteetan generoaren arabera eraginaren txostena egiteko erabili zen ereduak hobetzeko xedearekin aurreko ekitaldian (2016) abiarazi zen **planteamendu berri eta berritzailea** ekitaldi honetan (2017) berrerabili eta finkatu egin dela.

Nabarmentzekoa da ere azken urte hauetan aurrekontuen lege-aurreproiektuei egin zaizkien genero-eraginaren txostenak aztertu eta analizatuta, eta horiek egiten lortu dugun esperientziari esker, hutsune batzuk eta hobetu beharreko batzuk antzeman ditugula. Horrenbestez, aurreko ekitaldian aukera izan genuen orain arte baliatzen zen ikuspegia eta analisisa berriaz formulatzeko, aurrekontu-prozesuan mainstreamingak ezartzeko prozesuan aurrera eginaz. Zentzu horretan, eta txostenean bertan aipatzen denez, ikuspegi berri honen xedea da: alde batetik, *aurrekontu-esleipenak emakumeen eta gizonen aukera sozioekonomikoetan dituzten eraginak aztertzea, euskal administrazio publikoaren jarduketarako guztietan, planifikazio-, gauzatze- eta ebaluazio-fase guztietan*; eta, bestetik, *emakumeek eta gizonen gure gizartean duten egoera eta/edo posizioaren ondorioz sorturiko bereizkeria-egoerak egonkortu edo areagotzen dituzten partidak horiek egokitu ahal izatea azterketa horri esker*.

- Zentzu horretan, erabat balioestekoa da **azterketa-erreminta berezia garatu izana, “P17-Gen aurrekontu-programak genero-ikuspegitik aztertzeko inprimakia”** delakoa. Honek, aurrekontu-programen generoaren araberako azterketa egiteko metodoa zehazten du, aipatu azterketa erabakiak hartzeko eta aurrekontu-konpromisoak ezartzeko prozesuaren baitako funtsezko dokumentu estrategikoa bilaka dadin. Azterketa-erreminta horren birtualitatea are handiagoa da oraindik, Gobernu Kontseiluan onartu eta legezkotua izan zela aintzat hartuta, Aurrekontu Orokorrak egiteko Jarraibide Ekonomikoen eta Arau Teknikoen barruan.

Azterketak ez du maila horretako konpromiso politikorik ezagutu aurreko ekitaldietan. Generoaren araberako ebaluazioaren gauzatzea arautua bazegoen ere, aipatua nola egin zehaztu gabe zegoen, ez eta zeinek zuen azterketa hori egiteko ardura ere. Izan ere, berdintasunerako politikak sustatzea xede zuten administrazio-unitateek hartzen zuten aipatu ardura eta aipatuak izan ziren Jarraibidetara egokitutako azterketa-metodologia bat garatu zutenak. Ikuspegi horrek analisi-ahalmen mugatua zuen, azterketa berdintasunerako politika zehatzetara mugatzen baitzen gehienbat eta horiek, oraindik ere, gutxi baitira aurrekontuen ikuspuntutik politika publiko orokorrekin alderatuta. Berdintasunerako politikek Eusko Jaurlaritzako aurrekontu osoaren barruan duten aurrekontu-pisua kalkulatzeko garrantzitsua bada ere, aurrekontu-prozesua askoz konplexuagoa da eta politika berezi horiez haraindi doazen programa eta eskumen-arlo ugari hartzen ditu barruan eta, horrenbestez, argazki murriz horrekin ezin da politika publikoen genero-eragin erreal eta osoa neurtu. Horrek jarduketa publikoaren eta esku-hartze publikoaren jarduketa-eremu ezberdinetan emakumeen eta gizonen bizitzan duen eraginaren azterketa mugatua dakar.

Eta, ondorioz, oso ondo balioestekoa da analisia zabaldu eta administrazio orokorreko beste politika publiko guztiak genero aldetik neutroak ez direla eta, ondorioz, beren genero-eragina aztertzea beharrezkoa dela nabarmendu nahi duen pausu kualitatibo hau. Dagokionean, gainera, ezberdintasunekin bukatu eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea helburu duten politikak gauza daitezke ikuspegi berri honi esker.

- ***P17-Gen inprimakiaren egitura zehatzari dagokionean, nabarmentzekoa da nabarmenki hobetzen dituela aurreko azterketak.*** Aipatuari esker, alde batetik, Jaurlaritzako aurrekontu-programa guztien genero-egokitasuna identifikatuko da apurka-apurka; eta, bestetik, -egokiak diren horien- genero-garrantzia kuantifikatuko da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari ekarpen handiagoa egiten dioten programak beherako ordenan dimentsionatu ahal izateko. Beste alderdi garrantzitsu bat: programaren hartzaile diren emakume eta gizonen hasierako egoera eta posizioa aztertzeke jaso beharra dagoen informazio mota sistematizatu egin da. Sakontzen jarraitzea da asmoa, aurrekontu-programa bakoitzaren hartzailea den gizarte-taldea ezagutu ahal izateko, generoaren araberako azterketa konparatiboaren ikuspegitik.
- Balioestekoa da ere aurrekontuen generoaren araberako eraginaren aurretiazko azterketa egin izan den ekitaldi guztietan zehar ***sailen arteko lankidetzadinamika bat*** sortu dela, aurrekontuari dagokionean eskuduna den Sailaren lidergoarekin, bai eta Emakunderen funtsezko paperarekin ere.

Metodologia berri horiek prozesuak duen izaera batutzailearen adierazle argiak dira, gauzatutako ekimen ezberdinetatik elikatzen baita: Emakundek aurreko legegintzaldietan esperimientalki eta pilotu gisa sail batzuekin gauzatu zituenak; sail guztiek partekatu duten ikaskuntza; eta, azkenik, EAEko zein Estatuko erreferentziazko beste herri administrazio batzuek gauzatu zituzten prozesuak. Hain da handia etengabeko hobekuntza-maila, ezen aurreko ekitalditik aurtengora inprimakia hobetzea saiatu baikaren. Nolanahi ere, sinergia-lan hau hobetu beharra dago oraindik, erakundeen arteko koordinazioa erabatekoa izan dadin maila politikoan zein maila teknikoan ere.

Laburpen gisa:

Hori guztiairengatik, berriz ere esango dugu **oso ondo baloratzen dugula erronka berri hau**, hots, gobernuaren aurrekontu-jardueran genero-ikuspegia sartzeko lan-prozesua abian jartzeko erronka, konpromiso eta lidergo politiko berriak aktibatuz, bai eta lan itunduko estrategiak ere (Ogasun eta Ekonomia Saila, Emakunde eta gainerako sailak). Horretarako, behar eta baliabide berri batzuk identifikatu dira, eta lan-tresna berriak sartu dira prozedura administratiboan.

Ikuspegi berri hau ez da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikek Jaurlaritzako aurrekontu osoaren barruan duten aurrekontu-pisua kalkulatzera mugatu; haatik, haratago joan eta aurrekontu-politikak, osotasunean, generoari dagokionez neutroak ez direla agerian utzi duen lan-prozesu bat aktibatu du. Generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzeko txostena egiteko lan-prozesua, gainera, ez da egiazko xede bat, politika publikoen aurrekontuak zehazteko prozesua hobetzeko beharra dagoela erakusteko modu bat baino. Ikuspegi berriak eta datuak biltzeko erreminta eta metodologia berriak dituen fase hau, aurreko ekitaldian hasi genuena, apurkako prozesu baten lehen gerturatze bat baino ez da izan. Etorkizunean, aurrekontuak zehazteko prozesuan parte hartzen duten eta berdintasunerako unitatetako langileak hezteko-inplikatzeko estrategiak ezarri beharko dira. Estatistika-tratamendu konparatiboari loturiko beste zenbait administrazio-prozedura nagusi hobetzeko beharra agerian geratu da ere, aurrekontuen generoaren arabera eragina identifikatu ahal izateko jarduketa publikoaren lehentasunetarako instrumentu gisa; horri esker, emakumeek eta gizonek dituzten gizarte-posizio eta baliabide publikoetarako sarbide ezberdinak nabarmenduko dira.

Aurrekontu-politikak beste modu honetan hartzeak eragin positiboa dakar, zinez, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko; izan ere, aurrekontuari generoa jartzea esan nahi du, eta ez soilik zehaztea aurrekontuetan zenbat gastatzen den emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika zehatzetan -orain arte egin zen bezala-. Azken buruan, aurrekontu-programa guztien genero-eragina, eta lehentasunez, herritarren bizi-kalitatean eragin handiagoa dutenena analizatzeko, politika publiko guztiak aztertu behar dira, ez bakarrik aurrekontuetan berdintasun-politikek duten pisu erlatiboa.

Genero-eraginaren txostenaren edukiari dagokionez, nabarmentzekoa da, aurreko ekitaldietan ez bezala, hasitako lan-fase berri honekin bat, ez dela zehazki egitura bera baliatu dokumenturako; horretaz gainera, aldatu egin dira edukiak:

- Ildo horretan, **sarreran** genero-ikuspegidun aurrekontu publikoen marko arauemailea eta kontzeptuala jorratzen da, mainstreamingaren estrategiaren jarduketa nagusi gisa. Proposamen gisa, EAEko genero-ikuspegidun aurrekontuei buruzko atalak dio hasierako testuingurua aipatu beharra dagoela, egungo lan-metodologia azaltzeaz gain, aurrekariak eta egondako aurrerapena testuinguruan ipiniz ere, arestian aipatu dugun izaera batutzaileko ikaskuntza prozesu bat dela azpimarratuz. Garrantzitsua da azaltzea, inflexio-puntu bat izan baita aurreko ekitaldian eta aurtengo honetan. Garrantzitsua da ere gauzatutako jarduketak ezagutaraztea, sailen arteko lanaren balioesteari eta beste sail eta organismo guztien partaidetzari dagokienean gehienbat, eragile guztiak inplikatzeko dituen mainstreamingaren beharrezko estrategia sendotu ahal izateko.

EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko analisia egiten duen atalak *diagnostiko sozioekonomikoa* izenburua jaso du oraingoan. Halere, Institutu honek aurreko izenburua berreskuratzea proposatzen du, **gizonen eta emakumeen egoerari alderatzen dituen** errealitate-diagnostiko bat dela azaltzea askoz ere egokiagoa dela uste baitugu.

Positiboki hartu da, halere, laburragoa ete generikoagoa dela, aurreko ekitaldian bezalaxe, eta ez dela aurreko txostenetako xehetasunetan sartzen. Era berean, eta orokorrean, oso positibotzat baloratu da datuak sexuen arabera eguneratzeko egin den esfortzua, osasuna, denbora, ezagutza, enplegua, dirua eta boterea bezalako baliabide nagusiez baliatzeko aukeraren inguruko ahalik eta adierazle berrienak eskainiz, alde batetik eta, bestetik, emakumeen aurkako indarkeriaren intzidentziari buruzko datuak eskainiz ere. Nolanahi ere, aurtengo pilotu esperientzia salbuespenezkoa dela aitortuz, non beste urte bateko eskarmentua lortu dugun, iazko ekitaldian bezalaxe; legegintzaldi berrian egon diren sailtako egitura organiko eta funtzionaletan egon diren aldaketak; bai eta txostena egiteko izan dugun epe laburra ere, aintzat hartu beharreko zenbait hobekuntza identifikatu dira:

- Ahal den neurrian, funtsezko beste gizarte-baliabide batzuk eskuratzeko aukeraren inguruko datuak biltzea ere, hezkuntza eta heziketa arloetakoak bereziki, ezagutzaren inguruko atalean teknologia berrien eta generoaren araberako haustura digitalaren inguruko datuak jasotzen baitira. Kultura- eta kirol-baliabideez baliatzeko aukeraren inguruko azterketa nahiko urria da ere.
 - Orokorrean, atal hau bereizitako beste datu batzuekin aberastu beharra dago, eta are gehiago inprimaki berriarekin, zeinak aurrekontu-programa bakoitzaren hartzaile diren gizarte-talde guztiak aztertzea aurreikusten duen.
 - Azkenik, etorkizuneko txostenetan generoaren araberako haustura nagusiak laburbilduko dituzten ondorioak jasotzeko atal bat jasotzea proposatzen da.
- **Diru-sarrerak** aurrekontu publikoen funtsezko zati gisa **aztertu** dituen atalak, generoaren ikuspegitik horiek duten garrantzia eta etorkizunean aipatuek generoaren arabera duten eragina aztertzeako asmoa agertzera mugatzen da (superabitari edo defizitari dagokionean gehienbat, baina gastu publikoaren generoaren araberako eraginari buruzko lana finkatu ondoren, bakarrik). Oso ondo balioestekoa da diru-sarrerak etorkizunean aztertzeako asmo hori.
 - **Gastuen azterketari** buruzko atalean, aurrekontu-programak aztertu dira.
 - Lehenik eta behin, oso ondo balioestekoa da **gauzatu den prozesuaren xehetasunak eman direla, galdetegia betetzeko eskaera jaso duten organismoak zeintzuk diren eta zeintzuk ez duten aipatua jaso ere**. Informean esaten den bezala, eta zailtasun edo arrazoen ezberdinen ondorioz, P17-Gen inprimakia aplikatzearen ondorioz azterketa pairatu behar zuen aurrekontu guztia 12.116 milioi eurokoa bazen ere, azkenean aztertu izan den aurrekontua 9.072 milioi eurokoa izan da, Sail guztiek ez baitute inprimakia betetzeko aukerarik izan; edo epez kanpo bidali baitute. Nabarmentzekoa da bidalitako galdetegien % 39,1a Hezkuntza Sailetik iritsi dela (128tik 50), nahiz eta Sail horren aurrekontua aurrekontu osoaren % 24a suposatzen. Era berean, txostenak nabarmendu duenez, 31 Sail eta Organismo Autonomoetatik 22k aktiboki parte hartu dute inprimakiaren betetzean eta azken horietako 14k aurrekontu-programa guztien azterketa egin dute. Alderdi hori nabarmendu eta balioetsi beharra dago, aurreko ekitaldiko azterketa murriztagoa eta desorekatuagoa izan baitzen.
 - **Egokitasunaren analisiaren** inguruan, txostenak dio aztertutako aurrekontu-programen % 87a generoaren ikuspegitik egokitzat hartua izan dela (aurrekontuaren % 75). Horrek esan nahi du aurrekontuetako programa

gehienak ez direla neutroak generoari dagokionez eta, horrenbestez, aipatu programak generoaren ikuspegitik landu beharra dagoela.

- **Garrantziaren analisiaren** inguruan¹, generoarekiko sentiberatasuna zehazteko azterketak oso ezberdinak egin direla ikus daiteke, Sailen arabera:
 - Honela, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren txostenak dio ez duela osagai nahikorik bere aurrekontu-programek generoarekiko agertzen duten sentiberatasuna zehazteko eta, ondorioz, laukiak hutsik ageri dira.
 - Azterketa egin dutenen artean Emakunde da azpimarratzekoa; honek, garrantzi-mailarik altuena agertu du, nola ez. Bere atzetik datoz: Segurtasun Saila -bi puntura- eta Garapen Lankidetzarako Euskal Agentzia (GLEA). Garrantzi ALTUKO taldean daude ondokoak ere: Enpleguko eta Gizarte Politiketako; Hezkuntza; Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza; Osasun sailak eta Haurreskolak Partzuergoa. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila garrantzia ertaineko taldean ageri da, Hizkuntza Politikako 4711 programaren garrantzia baloratu ez duelako; halere, Garrantzi Altuko taldekoa dela pentsa genezake.

¹ Garrantziaren sailkapena: altua-ertaina-baxua

- Generoari dagokionean Garrantzi Ertainekoak dira Lehendakaritza eta Ogasun eta Ekonomia.
 - Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak ez du garrantzia kalkulatu, dituen lau aurrekontu-programetako bakar bat aztertu baita.
 - Zentzu honetan, eta bukatzeko, txostenean esaten den bezalaxe, aztertutako aurrekontuaren % 39,8a garrantzi-maila altukoa da, % 54,1a garrantzi-maila ertainekoa eta % 0,6a baino ez da garrantzi-maila baxukoa. Gelditzen den % 5,5a baloratuak ezin izan diren programei dagokie. Horrenbestez, azterketak agerian utzi du aurrekontuaren % 93,9a garrantzi-maila altukoa edo ertainekoa dela. Garrantziaren araberako esku-hartzeen lehentasuna zehazterakoan, pentsa genezake azterketa hori etorkizunean egin daitekeela, aipatu garrantzia kalkulatzeko erabili diren irizpidetan oinarrituta: *botere eraldatzailea, eragiteko gaitasuna* edo *garrantzi funtzionala*.
- **Berdintasuneko politika zehatzei** dagokienean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko edo bermatzeko jarduketa esanguratsuak zerrendatzen ditu txostenak, ikusgarritasuna emateko aipatuei, baina inolako azterketarik egin gabe. Nolanahi ere, berdintasunerako politika zehatzen generoaren araberako eraginaren azterketa osoa izan zedin, programa bakoitzaren aurrekontu-sail ezberdinak aztertu beharko lirateke eta, zehazki, aipatu politika bereziak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politika zehatzek aurrekontu osoan duten pisu erlatiboa ezagutu ahal izateko, aurreko ekitaldietan egin den bezalaxe. Arestian aipatu dugunez, txosten hau finkatzeke dagoen lan-prozesu berri eta berritzaile baten emaitza da. Horrenbestez, generoaren araberako eraginari buruzko txostenak berak dioenez, gai hori datozen ekitaldietan aintzat hartu beharko da.

- Azkenik, oso baikorki baloratu da **hobekuntza proposamenak** atalaren gehitzea, aurrekontu-programen edukia hobe baitaiteke honela, bai eta generoaren araberrako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko prozesua ere. Jarraian, zenbait proposamen nabarmentzen dira, beren garrantzia eta adostasunagatik eta, halaber, egiaztatze-txosten honek datozen ekitaldietarako proposa ditzakeen hobekuntza proposamenekin bat doazelako ere.
- Alde batetik, beharrezkoa da aurrekontuei eta ebaluazio honen gauzatzeari zuzenki lotuta dauden eragileak, berdintasunean adituak diren langileak barne, gaitzeko prozesu bat diseinatzea.
- Bestetik, koordinazio-prozesuak eta estrategiak hobetu beharra dago maila politikoan zein teknikoan. Honela, azterketa legezkotu eta orain arte berdintasuneko administrazio-unitateen ardura izan den lana babestuko baita.
- Bestalde, datuak eta informazioa -estatistikaren arlokoak bereziki- era egokian biltzeko lan-prozesu mailakatuak diseinatzeko beharra ikusi da, programen jomuga diren taldeak hobetu ezagutu ahal izateko. Azterketa honetarako, ezinbestekoa da diru-laguntza lerro guztietako zuzeneko, bitarteko eta azken onuradunen inguruko datuak lortzea. Era berean, programa eta/edo zerbitzuen hartzaile diren pertsonen buruzko sexuaren arabera bereizitako datuen bilketa hobetu beharko litzateke, bai eta aurrekontu-memorien betetze-mailari buruzko txostenetan ere.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politika zehatzen aurrekontu-esleipena hobetzen jarraitu beharra dago baita ere, 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, jasotzen dituen eginkizunen gauzatzerako eta neurrien betetzeerako beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak esleitzeko agindua betetzeko.
- Eta, halaber, berdintasunerako unitateen aurrekontu-esleipen berezia era egokian identifikatu beharra dago ere.
- Aurrekontu-memoriek, funtsezkoak aurrekontuak jarraitzeko, sail ezberdinetako Berdintasun Planetako xede eta jarduketari loturiko esku-hartzeen ikusgarritasuna areagotu beharko lukete.

Oso ondo balioestekoa da sailek inprimaki hau betetzeko egin duten esfortzua, aipatua esperientazio-fasean baitago eta, are gehiago, legegintzaldien arteko trantsizio-epe haren baitan ezarri ziren lanerako epeek ekarri zituzten zailtasunak aintzat hartzen baditugu. Esan ere Ogasun eta Ekonomia Sailak zailtasunak izan dituela, zio berberengatik, bere lan erdiratzailean eta txosten hau egiteko prozesuan. Azkenik, aipatu ere Emakundek denbora mugatua izan duela egiaztatze-txosten hau egiteko eta ez duela txostena patxadaz eta sakontasunez berraztertze-ko aukerarik izan.

Laburpen gisa:

Lehen fase pilotu honetan generoaren araberako eragin-txostenaren edukia aztertuta, eta datuak lortzeko tresna eta metodologia berriak kontuan hartuta, argi dago hurrengo ekitaldietan ***hobeto estandarizatu beharko dela generoaren araberako eraginaren txostenaren egitura.*** Estandarizazio horri esker, urteko ekitaldietako analisi konparatiboak egin ahal izango dira; aurrekontuen generoaren araberako eraginaren bilakaeraren segimendua egin ahal izango da, luzetara; eta konparazioak egin ahal izango dira sail eta erakunde autonomo guztien artean.

Bestalde, aurrekontu-politika osoari genero-ikuspegia txertatzeko lan-estrategia berriak - aurrekontu-programa guztien genero-eraginaren analisiak- ez du salbuesten ***politika espezifikoen aurrekontu-datu ekonomikoak aztertze*** -aurrekontu guztian berdintasuna sustatzera zer ehuneko bideratzen den kalkulatzeko da gastu-analisi horrekin-. Beraz, beharrezkoa izango da analisi hori berreskuratzea. Aurreko txostenetako datuen arabera, urteko aurrekontuan berdintasun-politikek duten ehunekoaren pisuaren analisia kontuan hartuta, badirudi beharrezkoa dela konpromiso bat hartzea aurrekontuak progresiboki gehitzeko, berdintasunaren alorrean dauden lege-aginduak betetzeko dauden eskari gorakorrei erantzun ahal izateko. Estrategikoa da, halaber, esleipen berezi nahikoak ematea

berdintasuneko administrazio-unitateei, beren eginkizunak behar bezala bete ditzaten.

Edonola ere, berriz esan beharra dago *ikuspegi berri honek inflexio-puntua dakarrela eta hobetu egingo duela aurrekontu-legeari buruzko eragin-txostenak egiteko metodologia, eta, ondorioz, aurrekontuak egiteko prozesua eta legea bera idazteko prozesua.*

Lege-aurreproiektuaren eta genero-eraginaren txostenaren idazkerari dagokionez, **hizkuntzaren erabilera ez-sexista** egin da oro har, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Legearen 18.4 artikuluan agintzen denarekin bat etorritz.

Bukatzeko, eta aurreko ekitaldietan egin bezala, **berriro adierazi nahi dugu erakunde honi lehenago eskatu behar litzaiokeela nahitaezko txostena**, izapideak behar bezala egiteko denbora izan dezan.

Gasteizen, 2017ko otsailaren 21ean.